



## ARTZINIEGA KO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2016ko ekainaren 2a**  
**Ordua: 09:05 – 10:10**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan**

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Maria Lorente Burgos  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Alazne Lafragua Ureta  
Unai Gotxi Kastrexana  
Joseba Elejalde Ribacoba.

Ez dira bertaratu:

Jose Luis de Valle Duque  
Arkaitz San Jose Martinez

M<sup>a</sup> Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

#### **1. 2016ko maiatzaren 5ean egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.**

Alkate jaunak hartu du hitza: Baduzue ezer esateko?

Oharrik egin ez denez, 2016ko maiatzaren 5ean egindako saioko akta bozkatu da:

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

#### **2. Alkatetza-ebazpenen berri ematea**

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 72-89 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.



Ascensión Hormazabal: 84. Dekretua utzi dizuet mahai gainean. Zerrenda berrikustean, falta zela ohartu naiz, 72.etik 89.era baitira.

Alkatea: Hala da. Zerbait galdetu nahi duzue? Bueno, goazen hirugarren puntura.

Joseba Elejalde Ribacoba: Aurreko bilkuran, 81. dekretuaz galdetu nuen, martxoan onartu zenari buruz. Helegite bat jarrita zeukala esan zidaten, eta nik Udalbatzaren akordio hori atzera botatzeko eskatuko nioke, txarto hartutako erabaki hori ezer ez kostatzeko ez Artziniegako Udalari ez Artziniegako biztanleei. Jakina, nik ez diot inori errua egotziko. Goitik etorri zitzaigun, eta denok pentsa genezake ondo zegoela, proposatzen zena zuzenbidez, legez eta Estatuko aurrekontu orokorren arabera egokia zela. Baina, tira, nik egun hartan esan nuen nire iritziz %0,6ko igoera hori ez zela egokia, Estatuko aurrekontu orokorretan aurreikusitakotik kanpo zegoela. Hemen, onartu egin zen, eta orain, helegitea jarrita dago. Eta bueno, nik Bilduri eskatuko nioke, EAJri eskatuko nioke, Udalbatzaren akordio hori atzera botatzeko eta dagokion instantziari puntu hori baliogabetuta dagoela jakinarazteko. Horrela, ez genuke Udal honi dirua kostatuko zaion auzi batean sartu behar.

Alkatea: zuk esan duzun bezala, helegitea jarri dute akordioaren kontra. Beraz, kasua aztertu beharko da, ea talde juridikoak lege-ibilbiderik dagoen ala ez ikusten duen, eta orduan, ekintza egokiak proposatuko ditu. Baina akordioa baliagarria dela eta defenda daitekeela erabakitzen bada, Udalak, noski, hartzen dituen akordioen balioa defendatu edo iraunarazi behar du.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

### **3. Udal kudeaketaren kontrola**

- Bueno, zuek hitza hartu baino lehen, zerbait esan nahi dut. Udaletxe zaharreko obrari buruz galdetu zen. 12.000 euroko aldaketa bat gertatu da, eta esan behar dizuet 12.163,76 euroko 2/2016 espediente osagarria egin zela, Udaletxe zaharreko proiektuaren zenbatekoa osatzeko. Plan Foralak emandako kantitatea soilik aldatu zen kreditu-gaikuntza gisa. Beraz, irisgarritasunerako 52.000 euroko diru-laguntza ez da gastuen kapituluan sartu. Hortaz, aurreproiektuaren zenbatekoari dagokionez, finantziario handia daukagu oraintxe bertan, eta Udalaren ekarpena 14.000 eurokoa izango litzateke.

Hori alde batetik. Beste batetik, Komaberri enpresaren kontratuari buruz ere galdetu zen. Itzulpen-zerbitzuaren kontratua geldirik egon zen, lehen zerbitzua ematen zuen enpresarekin arazoren bat izan genuelako. Hitzeko zenbatekoa 0,059€-koa da epe normalean, iragarki laburretarako. Epea 24 ordukoa da, eta akten itzulpenarako, prezioa 0,056€-koa da.

Eta ondoren, Barcenako proiektuaren esleipenari buruz ere galdetu zen. Esan behar da, kasu horretan, lizitazioaren prezioa 14.703 eurokoa zela, BEZa barna, eta esleipena 8.401 eurorengatik egin zen. Beraz, beherakada gertatu zen. Hori esanda, hitza zuena da.

- Unai Gotxi Kastrexana: Bai, galdetu nahi nizun, Iñigo, nola doa Amurrioko gasolindegiko autobus-geralekuaren gaia, Zeraobeko ikasleentzat?

Alkatea: Bada, begira, Aldundiarekin izan dudana azken elkarrizketan, oraindik aurreikusita ez dagoela esan didate. Badakizue gasolindegia itxiera-agindua eta eraispen-agindua dituela, eta lekua egokitu beharko dela, eta...

Unai Gotxi Kastrexana: Ez dago epe laburrean edo luzean aurreikusita?

Alkatea: Epe laburrean.

Unai Gotxi Kastrexana: A, ados.

Alkatea: Epe laburrean. Bai, bai, bai, epe laburrean ez dute aurreikusita, oraingoz. Egia esan, aspalditik esaten ari ginen "hau badaukagu, egin ahal izango dugu", baina, ez, oraindik ez dago inolako erabakirik.



Unai Gotxi Kastrexana: Ados. Zaraobeko gaiarekin jarraituz, iazko urriaren 8ko bilkuran, Babio Guraso Elkartearekin bat egin genuen, eskola-autobusak landa-guneetara iritsi zitezten, eta gai horri buruzko batzorde espezifiko bat sortzea adostu genuen. 8 hilabete gertatu dira.

Inmaculada Vivanco Retes: Batzordea sortzea erabaki zen, edo guraso-elkarte horretatik bilkurara etorri ziren ordezkariak informazioa lortzean guri emango zigutela adostu genuen, biltzeko, taldeetako ordezkari guztiak jakinaren gainean uzteko...? Ez dakit.

Alkatea: Eta hor, batez ere...

Unai Gotxi Kastrexana: Nahi baduzu, akta irakurriko dizut: "Alkatea: Lan-batzorde bat sortzearen inguruan gehitu behar da eskualde-esparruan egin beharreko lana dela. Bigarren puntu bat gehitu beharko zaio mozioari". "Bigarrena.- Udal-batzorde bat sortzea adosten du, eragindakoekin batera egoera hau kudeatzeko plan bat egiteko, proposamenak eta konponbideak aztertuz".

Alkatea: Hilabete hauetan, batzordea ez da eratu, baina horrek ez du esan nahi gaia landu ez denik. Artziniegan, hiru egoera daude. Bat da Arteko Gure Ama ikastetxera joaten direnena. Denak garraiatzen ditugu, eta ez dugu batere baimenduta. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendaritzarekin hitz egin dut, ez dago arazorik. Gero, Zaraobe Institutura doazen 16 urtez beherakoak daude. Jakina, Artziniega eta Amurrio arteko kilometroak pasatzen ditugu, eta beraz, ez daukagu inolako arazorik garraioari dagokionez. Gure arazo nagusia 16 eta 18 urte bitartekoen garraioa da. Aiarako Udalan gai hori lantzen ari den batzorde batean hartu nuen parte, zer-nolako arazoa den eta zer gai jorratzen ari ziren jakiteko. Noski, arazo bat zegoen eskaerekin, e, baina zein diren zehaztea ere arazo bat da. Aiarako Udalaren arazoak eta gure arazoak oso desberdinak direla ikusi nuen. Izan ere, Etxaurren Ikastola dago, baina, oinezkoentzako biderik gabeko leku batean dago. Han badago mugaren barruan sartzen diren neska-mutilen kasua. Muga hori 2 kilometrokoa dela uste dut, baina, neska-mutil horientzat, oso zaila edo ezinezkoa da ikastolara oinez joatea. Hortaz, egia da batzordea oraindik ez dela sortu, baina horrek ez du esan nahi lanean ez gaudenik. Eta ez dugu batzordea eratu, baina ni harremanetan izan naiz Babio Guraso Elkartearen zenbait pertsonarekin.

Unai Gotxi Kastrexana: Berritot, Udaltzat hartutako akordio baten arabera, batzorde bat sortu behar dugu. Hura sortzea aurreikusita dago?

Alkatea: Bai, bilera hori egin beharko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: Noiz?

Alkatea: Bada, ekainean edo uztailan egin dezakegu.

• Unai Gotxi Kastrexana: Ados. Jarraitu egingo dut. Iazko iraileko bilkuran, Udalaren ohiko dokumentuak gaztelaniaz baino ez zeudela ikusi eta jakinarazi genuen, eta asko erabiltzen diren dokumentuen euskarazko eta gaztelaniazko txantiloak –hala nola obra-lizentziarenak, etab.– egitea proposatu genuen, interesdunen datuak soilik aldatzeko. Ados zeundela esan zenuen. Egingo da?

Alkatea: Bada, begira, itzulpen-enpresarekin berarekin arazoak izan ditugula kontuan hartuta, ez gara oraindik hasi, ez dugu egin.

Unai Gotxi Kastrexana: Hala ere, ez da hain zaila obra-lizentzia bat itzultzea.

El Alcalde: Bueno.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta amaitu egingo dut. Non dago usoentzat erosi zen kaiola?

Alkatea: Galdetu egin beharko dut.

Unai Gotxi Kastrexana: Ipinita dago?

Alkatea: Galdetu egin behar dut.

Unai Gotxi Kastrexana: Hilabete batzuk igaro dira ea erosi zen galdetu genuenetik, eta inbertsioa ez zen txikia izan, egia esan.

Alkatea: Galdetu egin behar dut.

• Alazne Lafragua Ureta: Gai gehiago daude. Arartekoren salaketen gaiari buruz da. Arartekoaren bulegoan aurkeztu diren bi salaketei buruz. Beraz, horren gainean zer neurri hartu diren galdetu nahi dugu, urritasuna dutenentzako diru-laguntzen sarrerei eta horri guztiari



dagokienez. Alegia, zenbait salaketa egin dira Arartekoren bulegoan, eta gai horrekin lotuta, sarrera batzuk egon dira Udalean. Zer neurri hartu dira?

Alkatea: Foru Aldundiari jakinarazi diogu, eta orain, Foru Aldundiak egoera argitu zain gaude.

Alazne Lafragua Ureta: Hortaz, Arartekoaren errekerimenduari erantzun zaio. Erantzun zaio?

Alkatea: Alde batetik, erantzun dugu, eta beste batetik, Aldundia jakinaren gainean jarri dugu.

Alazne Lafragua Ureta: Ados. Gero, guk badakigu zortzi espediente Bizkaiko Foru Aldunditik Arabako Foru Aldundira lekualdatzean Artziniegan gelditu direla. Guk dakigunez, zortzi kasu dira gutxienez. Zortzi pertsona dira, laguntzarik gabe geratu direnak. Haietatik, sei hil dira. Euren espedienteak aldundi batetik bestera lekualdatzearen zain baino ez zeuden. Alegia, nik uste dut gai hau nahikoa larria dela, neurri egokiak hartzeko modukoa dela. Behintzat, pertsona horiekin, ukitutako pertsona horiekin, hitz egin beharko da, zer gertatu den galdetzeko, irtenbideren bat eman dakiekeen ikusteko. Baina ezin gara zer gertatuko den zain geratu, salaketa batzuk iristen diren arte. Aldez aurretik bagenekien eta. Nire ustez, hortik...

Alkatea: Bueno, nik hemen Udalean dagoena dakit, besterik ez.

Alazne Lafragua Ureta: Iñigo, zuk zerbait gehiago dakizu, urriaren 29an neska bat etorri baitzen egoera horri buruz zurekin hitz egiteko.

Alkatea: Bai, eta Aldundiarekin hitz egin dugu. Eta prozedura zein zen jakin zain geunden. Izan ere, prozedura horretan, gizarte-zerbitzuek hartzen dute parte, baina baita Aldundiak ere.

Alazne Lafragua Ureta: Bai, jakina, noski. Diru-laguntzak Aldundiak ematen baititu. Baina kontua zera da: diru-laguntza horiek Artziniegan geldirik badaude, horri buruz hitz egin beharko da. Eta Artziniegako gizarte-langilea Aiarako funtzionarioa dela esateak ez dit balio, egia esan, kasuak Artziniegakoak baitira.

Alkatea: Berriri diot, Foru Aldundiari jakinarazi diogu, eta orain, Foru Aldundiak egoera argitu zain gaude.

Alazne Lafragua Ureta: Eta gero, Artziniegako gizarte-zerbitzuen mapa egingo dela aprobetxatuz, zeraren inguruko arazoaren berri eman zaio Aldundiari? Beharbada, beste langileren bat edo antzeko zerbait behar da.

Alkatea: Barkatu?

Alazne Lafragua Ureta: Hau da, gizarte-zerbitzuen mapa egiten ari garela aprobetxatuta, ea Artziniegako arazo hau Aldundiari jakinarazi zaion. Agian, langilea lanez gainezka zegoen. Nik ez dakit zergatik, baina, beharbada, sortzen ari den egoera hau aprobetxa daiteke Aldundia honen guztiaren jakinaren gainean jartzeko.

Alkatea: Ez, gizarte-zerbitzuen mapa beste gauza bat da. Gizarte-zerbitzuen mapan, zerbitzuak Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen eskumenen arabera banatuko dira. Noski, arazo bat dago hemen, eta arazo horri heldu behar diogu. Gizarte-zerbitzuen mapak eskumen berriak zehaztuko ote dituen? Bai, hori egingo du, baina hau ere konpondu behar da, eta nire ustez, maparekiko paraleloa da. Baina...

Alazne Lafragua Ureta: Gizona, nire ustez, ez dugu ezer galtzen zenbait gauza ere gertatzen ari direla esaten badugu...

El Alcalde: Baina hori egin dugu.

Alazne Lafragua Ureta: Hori ari nintzen galdetzen, ea egin den.

El Alcalde: Egin dugu. Jakina.

Alazne Lafragua Ureta: Azken finean, Udalak ematen duen zerbitzu bat da, eztea?

Alkatea: bai

Joseba Vivanco Retes: Bueno, gizarte-zerbitzuen maparen harira, mapa horrek eskumenak ere zehaztuko dituela ere imajinatzen dut, baina zer zerbitzu ematen diren eta nola ematen diren ere adieraziko du. Gizarte-laguntzailea kexu da, bere arreta-ratioa handiagoa delako Arabako beste eskualde batzuetako gizarte-langileena baino. Nik ez dakit hori egia den edo ez, baina kexu bat da. Baina argi dago, Alaznek zioen bezala, zenbait kasu, zenbait kexa daudela, ez bat ez bi, zenbait kexa baizik, Artziniegako espediente batzuei lotuak. Haietako bi



Arartekoaren bulegora iritsi dira, eta Arartekoaren bulegotik hona bidali dituzte, Udalari dagozkionak. Gainera, ez dugu garaiz erantzun, eta hori beste gauza bat da. Hori ere aurreko legealdian gertatzen zen beste gai batzuekin. Arartekoaren bulegora jotzen zen, eta erantzuteko hiru errekerimendu egoten ziren. Beraz, noski, uste dut Artziniegako Udalak txosten horiek helarazi beharko dizkiola Aldundiari, zure esanetan lekualdatu diren espediente horiek, eta ea nork lekualdatu dituen eta errua nork duen dakigun. Erantzukizuna udalarena izan daiteke...

Alkateak: Edo Aldundiarena.

Joseba Vivanco Retes: Gizarte-laguntzailearena de Aldundiarena, bietako batena. Eta zehaztu beharko dute ea arazoa hemengo gizarte-laguntzailearena den edo Aldundiarena den; edo bata ez da iristen, eta ez du bere lana egiten, edo bestea ez da iristen, eta ez du bere lana egiten. Baina ez dakit beste udalerrri batzuetan gauza bera gertatzen den; alegia, bat-batean horrelako arazoak sortzea. Bi kexa helarazi zaizkio Arartekoari, guk beste zortziren berri daukagu, beste batzuk ahozkoak izan dira. Izan ere, zenbaitek galdetu digu ea zer gertatzen den. Hortaz, horren izapideak egiteaz gainera, pentsatzen dut Udalak, gizona, aztertu egingo duela eta gizarte-zerbitzu horiek nolakoak izango diren hausnartuko dela. Bestalde, Aldundikoei esan beharko diegu: "Jaun-andreok, arazo bat daukagu hemen. Ez dakit arazoa hemen ala han dagoen, baina arazo bat daukagu, eta jendea kexatzen ari da". Orduan, gizona...

Alkatea: Bat nator esan duzunarekin.

Joseba Vivanco Retes: Baina imajinatzen dut, maparen amaieran, egongo dela... bai, niri oso ondo iruditzen zait Aldundiak epigrafe bat bidaltzea eta esatea "adierazi hemen zenbat pertsonari ematen diezuen arreta, zer daukaten, etxebizitza bat, ez dakit zer, ez dakit zer, eta bidali egiten digute". Oso ondo, baina esan beharko diegu hemen arazo bat daukagula, ez dakigula jakinarazi egin zaien, gizarte-laguntzaileak berak jakinarazi dien, gizarte-zerbitzuen mapari buruzko eztabaida parte hartzen ari diren edo parte hartu duten. Baina esan egin behar diegu "aizue, hemen arazo bat daukagu". Eta ez da arazo hutsal bat, ez da arazo bat ez dakit zenbat espedienteren artean, ez; kontua da espedienteekin arazoak daudela. Orduan, azkenean, Aldundia oso ondo dago han Gasteizen, baina jendea hemen kexatuko da, udalean, eta beraz, Udalak, eskumenak dituen arloetan, azalpena eta irtenbidea eman beharko dizkie kasu horiei. Azken batean, kasu horiek bereziki sentikorrak dira.

Alkatea: Ondo, beste ezer?

• Joseba Vivanco Retes: Bai. Nik, horrez gain, galdera bat egin nahi nuke, motu propio. Zuk azaldu beharko duzu, baina, tira. Lehenengo egunean, Aldundiak eta Ur Agentziak, Urak, asteartean bilera bat egingo zutela esan zenuen.

Alkateak: Bai, baina kontua da agenda dela medio bertan behera geratu dela. Urako norbait ezin zen joan. Atzeratu egin da.

Joseba Vivanco Retes: Alegia, zain jarraitzen dugula. Edonola ere, Uraren txosten horrek zer ekartzen duen alde batera utzita, guri atentzioa eman digu gauza batek: ez dakit normala den, kakotx artean edo ez, hain ibilbide luzeko erakundeetan edo administrazioetan proiektu bati ekitea, Eusko Jaurlaritzaren baimena ematen duen txostena izan gabe. Azkenean zer pasatuko den albo batera utzita, ez dakit horrelako kontu nahasian sartzea ona den ala ez; izan ere, gero, Eusko Jaurlaritzako sailen batek esan dezake "aizu, nik ez dizut nire txostena eman, eta orain, nire txostena negatiboa dela esan behar dizut". Imajinatzen dut Aldundian norbaitek azalpenen bat eman beharko duela.

Alkatea: ez dakit. Ez dakit zein den ohiko lan-dinamika.

Joseba Vivanco Retes: Ohikoa bada, ba, tira, baina gauzak horrela funtzionatzen badu, deigarri samarra da, egia esan.

Alkateak: Ez dakit ohiko dinamika den ala ez. Ezin dizut esan.

Joseba Vivanco Retes: Baina, tira, nik ez dut uste ohikoa denik, baina, tira. Konponduko da.

• Joseba Vivanco Retes: La Torre hotelaren gaiari buruz galdetu nahi nuen, baina egin diren edo egiten ari diren gestioak alde batera utzita, nahiz eta, azken batean, horren berri ere



ez dakigun. Oso galdera zehatza da: jakin nahi nuke ea hotela uda honetan zabalduko den ala ez. Nire ustez, horixe da gaur egungo kontua: hotela udarako irekita egongo den ala ez jakitea.

Alkatea: Bada, eskaintza azkarra eta Udalarentzat ona egin ezean, ez.

Joseba Vivanco Retes: Gizona, galera ia erretorikoa zen, nire ustez denok ziurtzat jotzen baitugu ez dela irekita egongo. Izan ere, norbaitek eskaintza bat egiteaz gain, uste dut eraikinak zaharberritze-lanak eta zenbait jarduketa behar dituela, inork hor barruan zapaldu aurretik. Nik gogoeta bat egin nahi nuke: hotela uda honetan itxita badago, uste dut gu denon porrota dela, Udal gisa. Eta Udal osoaren izenean ari naiz. Ekainean egoera honetan egotea, eta erreferente nagusietako bat itxita egotea, batez ere udan, jendea eta turismoa erakarri behar den garai honetan, gu denon porrota da, nire ustez, Udal gisa. Gure aldetik, ez gara izan behar bezain beligeranteak gai hau konpontzeko garaian, ez aurreko legealdian, ez legealdi honetan, eta hori izan daiteke gure erru nagusia, agian. Aurreko legealdian, gai hau askotan aipatu zen batzordeetan, eta imajinatzen dut osoko bilkuretan ere azaldu zela. Askotan, mahai gainean geratzen zen, konpondu gabe, ez dakit zeren zain. Eta denbora aurrera zihoan, denbora aurrera zihoan, denborak aurrera egin du, eta ekainean gaude orain, eta hotela itxita dago. Guk, nik, erantzukizun-zati hori hartzen dut nire gain. Baina, bestalde, egia esaten bada, hotela itxita egotearen erantzukizun nagusia norbait leporatu behar bazaio, EAJ da norbait hori. EAJ, aurreko legealdian agintzen zuena, eta legealdi honetan agintzen duena. Esaten dudanez, gai hau askotan aipatu zen pasa den legealdian; askotan hitz egin da gai honi buruz. Guk, batzordeetan, alde eta moldez eskatu dugu txosten juridiko bat egiteko, Udaleko aholkularitza juridikoak lehen zeuden kontratuei buruzko txosten juridiko bat egin zezan, bai Udalaren eta Aramendiaren arteko kontratuari buruzkoa, bai Aramendiaren eta hotela zeraman pertsonaren artekoari buruzkoa. Gaur egunean, ez dugu ikusi kontratu horien nondik norakoak argituko zizkigun txosten juridiko bat ikusi, ez dakigu kontratu horiek nori dagozkien edo kontratu horiei zer dagokien. Ez dugu ezer ikusi. Uda iritsi da, eta esan dudanez, hotela itxita dago. Errua, eta nik ez daukat errurik, gobernatzen duenarena da, eta kasu honetan, EAJrena da, gai hau aurreko legealdiak konpondu behar baitzen. Ez dut esaten honetan konpondu behar zenik, eta honetan konpondu behar zen. Baina aurreko legealdian konpondu behar zen arazo hau, orduan baikenekiena arazoak zeudela. Bagenekien pertsona horrek utzi egin nahi zuela, eta azkenean, atzeratu egin dugu, atzeratu egin dugu, eta egoerarik txarrean harrapatu gaitu. Azaroan harrapatu izan bagintu, baina udan harrapatu gaitu, hain zuzen, eta denoi lehertu zaigu. Eta berriro diot, pertsona horrek zor diguna alde batera utzita, Josebak lehenengo egunean esaten zuenarekin bat gatozela kontuan hartuta, han barruan dagoena alde batera utzita, dena eraman duen ala ez kontuan izan gabe, dena eramateko eskubidea zuen ala ez edo zati bat Udalarena ote zen alde batera utzita, Udalaren interesak gai honetan nola defendatzen ari garen da kontuan hartu beharrekoa. Hori guztia alde batera utzita, beste kontu batzuk baitira (eta konpondu egin beharko dira), jakin nahi nuke Udala gai hori nola konpontzen ari den. Hotela itxita badago, errudun bat dago. Eta errudun horiek gobernuan zeudenak dira; lehenago egin beharko zukeen hau.

Alkatea: Ez izan zalantzarik. Hotela egun batean itxi eta biharamunean irekitzea egon balitz, horixe egingo genukeen. Ez izan inolako zalantzarik. Baina gauzak ez dira zuk azaldu bezain errazak. Eta beste adibide batzuk baditugu. Esaterako, Urduñako Aduana hotela. Ez dakit zenbat denbora daraman itxita. Guk ez dugu atzera begiratuko. Guk zera nahi dugu, hotela lehenbailehen irekitzea. Eta horiek dira ematen ari garen pausoak.

Joseba Elejalde Ribacoba: Josebak esan duenaren harira, ez dut ulertzen, Aramendiarekin hitzarmen bat egonik, zergatik ez duen hitzarmen hori aintzat hartzen Aramendiak. Hitzarmen horretan, amaieran, klausula batek dio hotela alokatzen duen enpresak edo pertsona fisikoak ezin duela utzi, harik eta beste enpresa batek hotelaren ardura hartu arte. Klausula hori ez du aintzat hartu, eta ez du beste ezer egin. Ni enpresa izango banintz, gauza bera egingo nuke, jakina. Horretarako daude gero abokatuak, ezta? Baina ez da posible guk Aramendiarekin hitzarmen bat edukitzea, eta Aramendiak bere nahiera egitea eta desegitea, batez ere desegitea, guk inolako jarraibiderik izan gabe. Hemen, zenbait urteren ondoren jakin dugu nola funtzionatu izan duen horrek. Josebak ondo zioenez, txosten teknikoak? Bi aldiz eskatu nuela uste dut, baina, tira, ez da ezer gertatzen. Ea barruan dagoena berea den edo ez



den, joan egin daitekeen, joaterik ez duen, Udala zer egoeratan geratzen den. Nire ustez, gai honi berriro heltzeko ordua da. Ezin dugu burua estali, ezin dugu ezkututzen jarraitu. Izan ere, argi dago arazoa hor dagoela, enpresarekin ere arazo bat dagoela, eta arazo hori konpondu arte, horren inguruan bueltaka jarraituko dugu batere irtenbiderik aurkitu gabe, ezer lortu gabe. Ziur nago eta badakit Alkatetza ahal den guztia egiten ari dela hotela martxan jartzeko. Dena den, lehenik eta behin, orain arte gertatu den guztia argitu eta konpondu beharra daukagu. Eta behin hori konpondutakoan, ezin ditugu akats horiek berriro egin, ez dakit zenbat urte barru orain arte eman ditugun pausoak ematen egon gaitezke eta.

Alkatea: Giltza atzo eman zuen. Hoteleko giltza atzo eman zuen. Eta...

Joseba Elejalde Ribacoba: 15ean eman zuela esan zen, pasa den hilabeteko 15ean. Pasa den hilabeteko 15ean eman zuela esan zen, nik hemen galdetu bainuen, eta 15ean edo herenegun izan zela erantzun zitzaidan. Ziur nago, zuk elkarrizketa pribatu batean esan zenidalako Aramendia harekin geratu zela hotelean sartzeko eta inbentario bat egiteko. Baina, noski, inbentario hori ere ez zaigu taldeoi eman. Kontua da zenbait gaitan, zuk ez badituzu gauzak bilatzen, ez dela informazioa iristen. Egun batzuetan, gauza batzuk esaten dituzu, eta beste batzuetan... Nik uste dut gai hau seriotasunez hartu behar dugula behingoz. Ezin dugu pentsatu bakoitzak interes jakin bat defendatzen duela, interes orokorra baizik. Artziniegaren eta artziniegarren interes bat da, eta hori aintzat harturik, lanean hasi behar dugu, eta gauzak behar bezala egin. Adabakiak jartzen ari garela argi dagoelako. Orain, adabaki bat jartzen dut hemen. Itxaron, ura hemendik irteten ari da orain; ba, adabakia beste leku horretan jarriko dut. Orain, ura atearen azpitik ateratzen da. Ekin diezaiozun behingoz gaiari, seriotasunez. Ikus dezagun zer egin behar den, zer egin behar duen Aramendiak, zer egin behar duen enpresak, zer egin behar duen Udalak, eta hori guztia kontuan hartuta, egin dezagun egin beharrekoa.

Alkatea: Bueno, lehen tasuna badaukagu: lehenbailehen irekitzea. Eta hortik aurrera, iradokizunak egitea eskertuko nizueke. Zuen ideia guztiak ondo etorriak izango dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: Tira, Iñigo. Gauza bat argi dago. Zer iradokizun egin dezaket nik, baldin eta iradokizunik egiterik badaukat, hitzarmen bat sinatuta badaukat enpresa batekin. Enpresak esan dezake: "hitzarmenari lotuko natzaio". Artziniegan inbertitu nahi duen edo Artziniegan hotel-jatetxe bat sustatu nahi duen enpresa bat lortzen baduzu, Aramendiarekin dugun hitzarmena bertan behera utziko dugu. Zenbat da Aramendiarentzat enpresa horrek egiten digun ordainketa bakoitzetik? Aramendiak kuota bat du, ez du kuotarik? Aramendiak lanik egiten du...?

Alkatea: Aramendiak ez du kuotarik.

Joseba Elejalde Ribacoba: Bueno, azkenean, horixe da jakin behar duguna. Zer egiten duen, zer ez duen egiten, eta zein diren taldeen eskumenak, edo Udalarenak berarenak. Hau da, Udalak lana egin behar badu Aramendiarentzat, eta Aramendia zain badago, ba ondo. Taldeok jakin behar dugu, eta Udalak jakin behar du, zeri egin behar diogun aurre. Eta jakina, hotela nola dagoen jakin behar dugu, hotela nola utzi duten. Eta ea dena ordaintzen ari diren, alegia gasa, argia. Udalari zor zaizkion zenbatekoez gain, garrantzitsua da lokal edo eraikin horren gainerako azpiegiturak nola gera daitezkeen jakitea.

Alkatea: Ondo. Besterik?

• Joseba Vivanco Retes: Bai. Artekaleko obrari buruz galdetu nahi nuke. Egun hauetan jakin dugu Batzar Nagusiek Arabako Lanak, Aldundiaren erakundea, Artekaleko zaharberritze-lanak egin zituen erakundea, desegin nahi dutela. Jakin behar dugu nori galdetu behar diogun, Aldundian nori galdetu behar diogun, kale hori nola dagoen. Udalak zer egin behar duen obra hori bere gain hartzeko. Obra hori duela bost edo sei urte amaitu zen, eta Udalak ez du oraindik hartu. Nik zenbait aldiz galdetu nuen horri buruz pasa den legealdian, eta oraindik ez dakit zergatik ez duen Udalak jaso. Ez dakit lanpara bat falta den, zerbait margotu behar den, oraindik lan txikiren bat egin behar den, zerbait txarto dagoen... Ez dakit kale horretan dena txarto dagoen, eta norbaitek, hemen, fardela bere gain ez hartzearen, obra ez jasotzea erabaki ote zuen, inork erantzukizunik eskatu gabe. Obra egin zuena, kasu honetan Arabako Lanak, alde batera utzita, kontua da bost edo sei urte igaro direla. Orain, Arabako Lanak desagertu egingo da, eta kale horretan, Udalak oraindik bere gain hartu ez duen obra bat dago. Niri



iruditzen zait Udala ere ez dela gai horregatik asko kezkatu. Ez dakit zergatik ez dagoen gai hori ixteko eta amaitutzat emateko interesik. Ez dakit, ez badugu obra gure gain hartu, zerbaitengatik izango da. Eta Aldundian norbaitekin hitz egin beharko da gai hori behin betirako ixteko, legealdi honetan behintzat. Beraz, berriro eskatu nahi diot Udalari gai hori amaitutzat eman dezan.

Alkatea: Ez dut espedienteari buruzko ezagutza sakona. Begiratu egingo dugu. Baina badakit Arabako Lanaken eta Foru Aldundiaren aldetik harrera bat egon zela.

Joseba Vivanco Retes: Bat?

Alkatea: Baina Udalaren aldetik ez dago obra-harrerarik. Baina Arabako Lanaken eta Foru Aldundiaren aldetik, bai. Beraiek zuten agindua. Aldundiak zeukan obra egiteko enkargua, eta Arabako Lanak erakundeari agindu zion. Bera. obra-harrera bat egon da.

Joseba Vivanco Retes: Guk hemen ez daukagu hartze-agiririk, eta hori paradoxiko samarra da. Eta ohartarazi nahi nizuke, espedientearen berri ez duzula diozunez, espediente hori aurreko legealditik datorrela. Orduan ere, zuek zeundeten Udalbatzan. Eta gainera, iazko iraileko edo urriko bilkuran, ez dut gogoratzen zeinetan, Artekalako obrari buruz galdetu nuen, eta obra hori gure gain hartu gabe zegoela esan nuen. Aktari erreparatzen badiogu, Alkatetzaren isiltasuna ikusiko dugu, ez dela horren inguruan ezer egin. Sei hilabete igaro dira. Orain, Arabako Lanak desagertuko dela jakin dugu. Espero dut beste sei hilabete ez igarotzea gai hori konpondu gabe.

Alkatea: Artziniegako Udalak Aldundiarekin zeukan enkargua, ez Arabako Lanakekin.

Joseba Vivanco Retes: Aldundiarekin?

Alkatea: Bai.

Joseba Vivanco Retes: Berdin zait. Udalak obra hori bere gain hartu ez badu, zerbaitengatik izango da. Txarto pentsatzen ipinita, agian norbaitek ez zuen obra hartu nahi. Ez dakigu nola dagoen, zer falta den. Denok dakigu Beratza aldapak ez lukeela irisgarritasun-kontrolrik igaroko. Baina ez dakit. Beharbada, gauza gehiago daude konpondu gabe, eta horregatik ez da obra hori hartu. Eta gero, tira, aizu, errua Aldundiarena da. Beraz, gai hau aztertu behar da.

• Joseba Vivanco Retes: Beste gai bat daukat. Duela hilabete, gutxi gorabehera, bilera bat izan genuen auzokoekin Retes de Tudelan, euren keak, argudioak edo eskaerak egin zituzten. Eskaera batzuk oso zehatzak izan ziren. Guk Udal Erregistroan ez dugu ikusi Alkatetzak gai horren inguruan ezer egin duenik. Eta gai horiek konpontzeko, ez da beharrezkoa kreditu-espedienterik edo soberakinik onartzea, edo antzekorik egitea. Alde batetik, Reteseko enparantzaren egoera negargarria salatu zuten. Oso argi esan zuten gaur egun Reteseko enparantza oso egoera txarrean dagoela. Beste batetik, Retesen aske dabilen aziendagatik kexatu ziren, kalteak eragiten baititu. Eta azkenik, eta iruditzen zait hau dela Josebak aipatu ohi duena, errepide-tarte horren eskumenaren gaia aipatu zen, ea norik garbitu behar duen, etab. Hiru kexa zehatz dira. Hilabetea igaro da, eta ez dut esan nahi asko edo gutxi denik, baina erraz egiteko moduko jarduketak izango direla uste dut: aziendaren jabeari jakinarazpen batzuk bidaltzea, enparantza hori garbitu behar duenari jakinaraztea, eta errepide-tarte horren ardura duenari eta, beraz, garbitu behar duenari horren jakinaren gainean jartzea. Azkenean, auzokoekin bilerak egiten ditugunean, ahoa betetzen zaigu, eta gero... Alegia, ekin dezagun, hori baita, azkenean, auzokoek nahi dutena. Batez ere, berriro diot, krediturik edo soberakinik onartu zain egon behar ez dugunean jardun behar dugu, edo lege batek dioenak garrantzirik ez duenean. Gai zehatzak dira, ekintzak eskatzen dituztenak. Nire iritziz, gauza horiek azkar egiten badira, Reteseko edo beste edozein lekutako auzokoek eskertu egingo dute. Eta kasu honetan, guk behintzat ez dugu Erregistroan jakinarazpenik edo gutunik ikusi. Azken batean, horretaz fidatzen gara. Izan ere, askotan, hau entzuten dugu: "ez, hori helarazi dugu dagoeneko, horri buruz hitz egin dugu". Baina, orduan, hori esaten digunarekin fidatu behar dugu, eta azkenean, batzuetan, katua erbitzat ematen digute. Baina, tira, auzokoak kexatzen badira, erantzun egin beharko zaie... Baldin eta arrazoia badaukate, aintzat hartu behar ditugu kexa horiek.





• Joseba Vivanco Retes: Auzokoen eskaerei azkar erantzutearen gai horren harira, ba, atzo, kasualitatez, Axpetik igaro nintzen, eta estolda batean pibote bat edo bi jarri zituztela ikusi nuen. Estolda hori oso txarto dago, eta ni, kasualitatez, handik joaten naiz ibiltzera, eta egun hauetan ikusi izan dut hori nola mugitzen ari den, nola dagoen. Auzokoren batek idazki bat egin zuen gai horri buruz, duela bi aste edo bi aste eta erdi, ez dut noizkoa den zehatz-mehatz gogoratzen. Ez dakit idazkia Axpeko auzoko batek edo bik egin zuten, baina kexu ziren, eremu hori oso txarto dagoelako, eta haien iritziz, han aurrean, txori ondoan, egiten ari diren etxe atxikien obrena zen errua. Nik ez dakit piboteak atzo edo herenegun jarri dituzten. Baina badakit, handik pasatu naizelako, egunak igaro direla eta estolda horrek txarto jarraitzen duela. Eta konponbidea pibote bat jartzea izan da; konponbidea hori bada, lehen egunean jar zitekeen. Erregistroan begiratu, azken batean horri jarraitzen baitiogu, eta ez dugu Udalaren jakinarazpenik ikusi; ez dugu ikusi Udalak estolda apurtu duenari konpontzeko eskatu dionik. Nik ez dut ikusi, bederen, eta ez dakit egin den ala ez. Baina espero dut Udalak hori konpondu behar ez izatea, berak ez badu apurtu eta obrek ere ez badute apurtu. Dena den, erantzun azkarra behar da. Ez dut uste asko kostatzen denik, eta berriz diot, auzokoek eskertu egiten dute.

Alkatea: Bi eskaera dira; hau da, bi gauza eskatzen dira. Alde batetik, igerilekuei buruzkoa, eta bestetik, estoldari buruzkoa. Ez dugu erantzun, baina biei erantzuna emateko prozesuan gaude. Igerilekuetan, konponketa-lanak egiten ari dira. Igerileku txikian, karea kentzeko tratamendu bat egiten ari dira. Bietan batera egiten ari dira konponketak, eta egoerarik txarrean dauden baldosak konpontzen. Txartoen dauden baldosak aldatzen ari dira. Estoldari dagokionez, piboteak aspaldi ipini ziren, ez dira atzo ipini. Egia da estolda hori txarto dagoela, egia da ez dugula idatziz eskatu kutxatila hori konpon dezaten. Baina etxe atxikiak egin zituztenekin hitz egin dugu. Hala ere, egia da obrako ibilgailuak hortik desbideratzen ari direla, aldi baterako. Beraz, erantzukizuna norena den zehaztea, ba,...

Joseba Vivanco Retes: Azkenean, ez dezala Udalak bere gain har. Udalak ez du ordaindu edo konpondu behar.

• Joseba Vivanco Retes: Ezer ez, beste bi kontu. Alde batetik, ez dakit Bizkaiko Foru Aldundiak irtenguneei buruz egin behar duen txostenaren berririk daukagun, gai hori nola doan edo nola egin daitekeen.

Alkatea: Oraindik ez, eta eskatzen ari naiz, e, baina oraindik ez daukate.

Joseba Vivanco Retes: Oraindik ez daukate. Eta gero, azken galdera bat, kalean galdetu baitzidaten. Dirudienez, arkitektoak, arkitektoaren zerbitzuak, jendearentzako arreta astean bi egunetik astean egun batera txikitu du. Nork erabaki du hori. Alkatetzaren erabakia izan da? Esan zidaten ez duela jendea hartzen... Ez daukat ideiarik ere, egia esan, eta galdetu egiten dut. Ez dakit jendearentzako arreta lehenengo bi egunetik astean batera txikitu duen, eta ez dakit Alkatetzaren erabaki bat den edo beraiek nahi izan dutelako erabaki duten.

Alkatea: Ez dago Alkatetzaren erabakirik jendearentzako arreta astean behingoa izatearen inguruan.

Joseba Vivanco Retes: Eta beraiek motu propio erabaki dezakete?

Alkatea: Ez. Ikusi egingo dut.

Joseba Vivanco Retes: Izan ere, iruditzen zaigu apur bat... Jendearentzako arreta txikitu badute, ez dakit zergatik edo zer argudiotan oinarrituta hartu duten erabaki hori. Eta gero, arreta egun batean soilik ematea motu propio erabaki izana egia bada...

Alkatea: Haiekin hitz egingo dut, arkitekto- eta aparejadore-zerbitzuak berrantolaketa behar duen ala ez kontuan hartuta. Izan ere, gerta daiteke ematen den zerbitzu hori berriro hausnartu behar izatea.

Joseba Vivanco Retes: Hausnartu behar da. Eta aprobetxatu nahi dut lehenengo egunean batzordean esan genuena gogora ekartzeko. Badakigu astean bi egun ez direla nahikoa dena egiteko, baina, azken batean, Udala da, Alkatetza da, ordutegiaren arauak ezarri behar dituena. Eta berriro esan nahi dut lehenengo egunean esan nuena: ezinezkoa da euren lanaren %80, 60, 70, 50 edo 90 gauza espezifiko bat egiten ematea. Udalak, zerbitzu horren bidez, beste gauza batzuk ere egin behar dituelako.



El Alcalde: Bueno. Gauza espezifikoa bat egiten dutela esatea zure irizpidea da. Nik, egia esan, ez dut uste euren denboraren %80 zerbait espezifikoa egiten ematen dutenik.

Joseba Vivanco Retes: Ba, orduan, ez dira euren lana egiten ari. Azkenean, lehenengo elkarrizketa bera izaten ari gara. Erantzunik jasotzen ez duten espedienteak baditugu, iraungitzen diren espedienteak baditugu, ez dakit zer adierazten duten txostenak edo ez dakit nora iristen ez diren txostenak baditugu, ba, ez dakit.

Alkatea: Beharbada, ezjakintasuna dago aparejadoreak eta arkitektoak egiten dutenaren inguruan, baina tira. Besterik?

Joseba Vivanco Retes: Nire aldetik, hori.

• Joseba Elejalde Ribacoba: Galdera bat daukat Inmarentzat. Ibilaldia 16ko autobusa, Durangora zihoana, kendu egin zen, imajinatzen dut ez zegoelako...

Inmaculada Vivanco Retes: Ez zen irten, bi pertsonak soilik eman zutelako izena, eta gutxienekoa 20 zen.

Joseba Elejalde Ribacoba: Hori gertatzen da normalean, edo aurten neska-mutilak mugitu egin dira?

Inmaculada Vivanco Retes: Bai, beste urte batzuetan ere gertatu da, beste batzuetan.

Joseba Vivanco Retes: Zer?

Joseba Elejalde Ribacoba: Ibilaldiko autobusa. Araba Euskarazerako aurreikusita dago...?

Inmaculada Vivanco Retes: Bai, pasa den astean 16 pertsona zeudelako izena emanda.

Joseba Elejalde Ribacoba: Batez ere zenbait gurasok galdetu egin didatelako jakin nahi dut.

Joseba Vivanco Retes: Nire ustez, garaiak ere eragina izango du, azterketa-garaia da eta, eta hortaz..., horrek ere eragina izango du.

Inmaculada Vivanco Retes: Araba Euskarazera joateko, Ibilaldirako izen-ematea itxi zenean –bi izen-emateak batera ireki baitziren–, 16 pertsona zeuden izena emanda. Aste honetan ez dut galdetu, baina izena emateko epea ekainaren 15ean amaitzen dela uste dut.

Joseba Vivanco Retes: Edonola ere, Josebak esandakoa aprobetxatuko dut, jaietara doazen autobusen gaiari helduta. Datorren urteari begira, nik zera proposatuko nuke: Euskal Eskola Publikoaren jaira joateko irteera bat, azken batean hori baita publikoa, eta ez pribatua. Ez dakit beste autobus horietako bat kendu beharko litzatekeen...

Inmaculada Vivanco Retes: Bueno, zeraren arabera...

Joseba Vivanco Retes: Aurten Hendaian izan da. Bidaia ona, gainera!

Inmaculada Vivanco Retes: Igande honetan da. Normalean egon den eskariaren arabera eskaini da zerbitzua. Eskola Publikoaren jaialdira joateko, niri behintzat inork ez dit inoiz galdetu. Lehenengo egunean, OOGan, irakasle batek aipatu zidan, eta zera esan nion, nire ustez ez eskolak ez guraso-elkarteak inoiz ez diotela Udalari eskatu Araba Euskarazekoaren antzeko autobus bat jartzeko, zerbitzu hori proposatzeko. Niri bederen inoiz ez didate eskaera hori egin, eta nik erantzun nion ez zegoela inongo arazorik; kontua da inoiz ez dela eskaera hori egin. Ez familiek ez eskolak berak. Baina ez dago inongo arazorik. Zenbait urtetan, Araba Euskarazera joateko soilik ipini da autobusa. Gero, beste zenbait urteetan, Ibilaldira joateko eskaria sortu zen, eta bietara joateko autobusa jarri zen. Baina, betiere, premisa horrekin. Gainera, minimoren bat eskatzen da deialdi horiek egiteko. Zenbait urtetan, Araba Euskarazeko autobusa ere ez da irten, zortzi pertsonak soilik eman zutelako izena. Orduan ez da egon autobusik, ez batera ez bestera joateko. Gutxieneko pertsona-talderik ez badago, autobusa ez da irteten.

Joseba Elejalde Ribacoba: Imajinatzen nuen horregatik izango zela. Jendeak Araba Euskarazi buruz ere galdetu izan du.

Inmaculada Vivanco Retes: Araba Euskarazera familiak joaten dira, ez neska-mutilak soilik, familia osoak baizik.



• Joseba Elejalde Ribacoba: Retes de Tudelako errepideari dagokionez, azken ehun metroetako eskumenaz gain, nik Tobaseko zubia ere aipatu nuen pasa den hilabetean. Ondoren, idazki bat egin nuen, eta jakin nahiko nuke gai hori zer egoeratan dagoen, Iñigo.

Alkatea: Zerbitzu teknikoak egoera-txostena egin zain gaude.

Joseba Elejalde Ribacoba: Igaro da dagoeneko. Arazo larria denean, hilabetea behar baino gehiago da txostena egiteko. Ez gara edozer gauzari buruz ari, ez dakit, nik uste dut gaia nahikoa larria dela. Errepide-tarte hori eraitsiz gero, hainbat gauza gerta daitezke, eta horietako bat errepide horretatik igarotzen diren pertsonen istripu bat izatea. Txosten azkar bat egiteko eskatu nuen, automatikoki helarazteko eskatu nuen, eta ez dut uste beharrezkoa denik. Aldundiko errepide-zerbitzuekin hitz egin dezakezu automatikoki, zer arazo dagoen azaltzeko. Eta ondoren, zerbaitekin seinaleztatze eskatzen nuen; berdin zait zerekin, kono batekin, bi konorekin, zinta batekin... Kontua da tarte horretatik igarotzen den jendea jakinaren gainean egotea, kontuz ibiltzea. Egia esan oso itxura txarra daukala, eta gero eta okerragoa. Izan ere, harrizko horma batek ez du hobera egingo. Nire aldeak galdera bat egin du Aldundian, eta ziur nago, halaxe esan baitidate Reteseko auzokideek, errepide-zerbitzuko bat egoera ikustera joan dela. Baina nik ez dut egin behar zuek egin beharko zenuketena lana. Nik nire lana egin behar dut, eta zuk, Iñigo, zurea. Eta zure lana da, nik duela hilabete galdera bat egin ostean, dena martxan jartzea da. Eta ez esan, hilabete igaro eta gero, txosten teknikoak egin ala ez egin aztertzen ari zaretela. Baina ez egitea erabakitzen bada, erreakzio azkarra izan behar du. Eta berehala ipini behar dugu Aldundiarekin harremanetan, beraiek egin dezaten horma horren eta errepide-tarte horren egoerari buruzko txosten teknikoak. Izan ere, istripuren bat gertatzen bada, harritu egingo gara gero.

• Joseba Elejalde Ribacoba: Horrez gain, jakin nahi nuke ea badakizun Kuadrillaren egoitzaren arazoaren berri. Uste dut izango duzula, Kuadrillaren barruan, Kuadrillaren organoaren barruan, zaude eta. Azkenean, amurriarren eta laudiarren arteko borroka ez da inoiz amaituko.

Joseba Vivanco Retes: Eta aiarraren. Aiarrak ere udaletxe zaharra proposatuko du.

Joseba Elejalde Ribacoba: Alegia, nik ez dakit azkenean Artziniegako Udalak edo zuk, alkate gisa, zerbaite proposatu duzun bilera horietan, edo batzuen edo besteen alde egin duzun, edo lanak egiteko garaian egoitzarik merkeena edo erdigunetik hurbilena dagoena zein izan daitekeen jakin zain zauden, edo...

Alkatea: Nik, oraingoz, ez dut inoren alde egin behar. Denok jarri beharko dugu norbaiten alde. Egoitzari dagokionez, guk ez daukagu udal-jabetzako eraikinik, horretarako erabil daitezkeenak.

Joseba Elejalde Ribacoba: Nik ez dizut esaten horretan sartu behar dugunik... Ni esaten ari naiz azkenean...

Joseba Vivanco Retes: Tira, hasieran, guk ere ez dugu proposatu, ezta batzordean ere. Ez dugu esan: "Aizu, egin dezagun guk eskaintza bat, egoitza ez dakit non jar dezaten". Egia esan, ez dugu horrelakorik proposatu, eta gutako inori ez zaio burutik ere pasa.

Joseba Elejalde Ribacoba: Aiarraldeko hiriburua den aldetik, zuzena izango litzateke egoitza Aiarran egotea, bost udalerrion erdian baitago. Nire ikuspuntutik, e?

Joseba Vivanco Retes: Aiarrak ere proposamena aurkeztu du. Atzo, Osoko Bilkura edo zerbaite izan zuten, eta uste dut euren eskaintza ere aurkeztuko dutela. Gero, ez dakit zertan oinarrituta hartu beharko den erabakia. Eskaintzarik onena egiten duenari emango zaion, edo...

Alkatea: Guk ez daukagu aurkezteko moduko eraikinik.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ez, nik ez dizut esaten guk proposamen bat egin behar dugunik. Nik hau diot: ea izan dituzuen bileretan zuk Amurrioren edo Laudiorren alde egitea pentsatu duzun, edo, Josebak orain esan duenez, beste proposamen bat egingo den, hala nola Aiarena.

Alkatea: Oraindik ez. Bueno, baietz esan dute, baina oraindik ez dakigu nork aurkeztuko duen egoitza.



• Joseba Elejalde Ribacoba: Gero, bueno, AEMEk bi idazki egin ditu; bat azokaren lekua aldatzeko da, eta bestea, alde zaharraren ordutegia ordubetez luzatzeko. Zerbait helarazi den edo haiekin bileraren bat egin den jakiteko da.

El Alcalde: Egin gabe dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ba, lehen bezalaxe esaten dut. Ez dago itxaroterik, erabakiak lehenbailehen hartu behar dira, eta Artziniegako merkatarien %80 edo %70 ordezkatzan duen elkarte batekin egon...

Alkatea: Ez, gehiago daude. Bi baino gehiago daude, baina AEMEn daudenekin egon behar dugu, eta AEMEn ez daudenekin; guztiekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: Gainera, hemen dagoen elkarte bat da. Niri berdin zait bi edo hogeita bost izatea. Hemen dagoen elkarte bat da, eta Udalak zenbait hitzarmen du harekin jarduketa batzuk egiteko orduan. Eta nire iritziz, bi galdera edo bi eskaera egiten badizkigute, haiekin bilera bat egin behar dugu, eta zer esan behar duten entzun eta haien eskaerei ahal dugun ondoen erantzun, Udalarentzat onena zer den kontuan hartuta. Ezin dugu gutxiagorik egin.

• Joseba Elejalde Ribacoba: Eta gero, beste gauza bat dago. Ordenantzak onartu eta onartu egiten ditugu, baina, gero, ez gara inora iristen. Lehen, Josebak azienda aipatu du. Ba, aurren, mendiei buruzko ordenantzari ez diogu inolako jaramonik egin, edo kirol-instalazioen erabilerari buruzkoari... Nire ustez, ordenantzak baditugu, bi aukera ditugu: alde batetik, ordenantzak betearaztea, eta bestetik, bilera egin eta ordenantza horiek aldatzea. Gu agintariak bagara, eta aginduak ez betetzen lehenak bagara, ba, negozio txarra egiten ari gara, edo, kartetan, bakar-jokoan, geure buruari tranpak egiten ari gara, ezta? Orduan, nik ordenantzak berrikus nahiko nituzke, ea zer ordenantza...

Alkatea: Baina ordenantza zehatzik duzu gogoan?

Joseba Elejalde Ribacoba: Ba, hain zuzen, bi aipatu ditut. Mendiko azindari buruzkoa. Ordenantza horren arabera, hiru hilabetean ezin da mendian azindarik egon. Ba, aurren ez diogu batere jaramonik egin. Mendian, urte osoan dago azienda. Kirol-instalazioaren erabilerari dagokionez, gauza bera. Oso instalazio politak ditugu, erabili egin daitezkeenak. Haiek erabiltzeko, ordaindu egin behar da, baina ordainketa horiek, zuek kontrakoa esaten ez badidazue, ez zaizkio inori egiten. Hortaz, azkenean, alda dezagun ordenantza. Egin ditzagun Udalak berak betetzen dituen ordenantzak. Auzokoei ordenantza horiek betetzeko eskatzen diegu, eta Udalak ez ditu betetzen. Beraz, azkenean, bakar-jokoan tranpak egiten ari gara, edo udalerrri honetako biztanleak engainatzen.

Alkatea: Bueno, ez dakit. Ezin dizun erantzun, ez dakit esaten duzuna egia den ala ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: Azkar erantzun daiteke eta. Ordenantzak... Iñigo, aurren, otsailean, ni gurgil-aulki batean etorri nintzen, eta zuk bilera bat egin zenuen udalerrri honetako abeltzainekin. Eta hemen, bilera hartan, urte osoan zaldi-azienda mendian askatzeko akordio batera iritsi zineten, nahiz eta ordenantza batek kontrakoa esaten duen. Ba, ordenantza hori betetzeko edo aldatzeko ari naiz eskatzen, besterik ez. Ez esan ezin oraintxe bertan erantzun. Oso erraza da. Alegia, onartu dugun ordenantza bat da, eta gu ez gara betetzen ari. Eta kirol-instalazioen erabilerari dagokionez, 30 urte daramatzagu ez betetzen. Hau da, hori ere ez da berria.

Alkatea: Azindaren kasua aurtengo aprobetxamendu-planean sartu behar genuela esan genuen, ezta? Uste dut. Bueno. Eta gainera, aho batez adostu genuen egin zitekeela.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ados jar gaitzke, baina alda dezagun. Adostasuna badago, ordenantza aldatu beharko da. Edo, adostasuna dagoenez, ordenantza utziko dugu alde batera? Ez dut ulertzen. Errepide batean, abiadura muga 50ekoa. 70ean joan gaitzkeela adosten badugu, jar dezagun 70eko seinalea. Edo 70ean joango gara, seinaleak 50 adierazten badu ere? Ez, lehenengo eta behin, ordenantza aldatu beharko da, eta ondoren, onartzen dugunarekin lanean hasi. Izan ere, azindari dagokionez, eta batez ere, Retesi dagokionez, azienda asko dago mendian, azienda bertan ibiltzeko prest ez dagoen mendi batean. Ez dago urik, itxi gabe dago, eta azkenean, gertatu beharrekoa gertatzen da. Baina guk azienda mendian askatzen jarraitzen dugu, abeltzainekin arazorik ez izateko. Ba, abeltzainei esan



beharko diegu gauza bat edo bestea egin behar dela. Edo ixten dugu eta denok kikiltzen gara, edo jarri beharreko jartzen dugu mendi horrek egoera egokia izateko etaazienda han egoteko. Bestela, ezin da han aziendarik egon. Alegia, ezin da onartu Reteseko mendira bazkatzera doan aziendak beste jabe batzuen putzuetako ura edatea edo beste larre batzuetan egotea. Urte osoan.

Alkatea: Besterik?

Joseba Elejalde Ribacoba: Ez.

- Alazne Lafragua Ureta: Bai, hemendik bai, e? Handik geratu zara.

Alkatea: Baina hitz egiteko txanda izan duzue dagoeneko.

Alazne Lafragua Ureta: Bai, baina bueno. Barkatu, baina Joseba sartu da, hain justu, eta ez dut jakin izan... Bueno, "EHBilduren udal-taldeak osoko bilkura hau aprobetxatu nahi du legealdiko lehen urteko balantzea egiteko; izan ere, iazko ekainean sortu zen denok osatzen dugun Udalbatza hau. Urtebete nahikoa baino gehiago iruditzen zaigu, ikusteko datozen hiru urteetan Artziniegan gobernatzen jarraitu nahi duen PPren eta EAJren arteko akordioaren helburu bakarra EHBilduri gobernatzen ez uztea dela, ezer ere aldatu ez dadin, gauza berberak egiten jarraitzeko, edo hobeto esanda, ahalik eta gutxiena egiten jarraitzeko. Izan ere, borondate ona eta espiritu konstruktiboa izan ditugun arren, ikusten dugu horma berberaren kontra burukadak egiten ari garela berriz. Gobernu-taldeak alde aurretik erabakita dituen erabakiak babesteko eskatzen zaigu, artziniagarrekiko dugun erantzukizuna aitzakia erabiliz. Baina, bestalde, urte honetan zehar, hainbat hobekuntza-proposamen egin ditugu, eta ez dugu proposamen horietako bat ere onartzeko borondaterik ikusi. Aitzitik, haietako batzuk aprobetxatu dituzue, baino goitik behera desitxuratuz, gauzak txarto eginez. Zenbait aldaketa sartzeko ahaleginak egon direla onartzen dugu. Adibidez, Udala auzoko guztiei irekitzeko egindako ahaleginak. Baina, azkenean, ez zarete ausartu jendearen protagonismoa onartzera, eta zuen ahalegin guztiak erdizka geratu dira. Gazte-txokorako edo berdintasun-gunerako hasitako prozesua dira horren adibide. Erabakita daukazuena babestu dezaten edo jarduerak proposatzeko baino ez duzue nahi. Euskara- edo turismo-foroak egoera berean daude. Urtebete izan duzue ekintzen bidez frogatzeko zuen gobernatzeko era gurea baino hobea dela. Gure ustez, ez duzue halakorik frogatu. Turismoari dagokionez, adibidez, duela urtebete baino okerrago gaude, objektiboki, eta hori guztia, osoa belarrietatik ez hartzeagatik. Uda honetan, ez dugu inolako ostaturik izango, lehen egiaztatu duzunez. Bestalde, arteko eremuan ez dago zerbitzurik, eta zenbait proiektu daude, baina ez dakigu oso ondo nola jarriko dituzuen martxan: eskualdeko mendietako ibilbidea, hirigune historikoko seinaleak, autokarabanetarako aparkalekua... Hori bai, akordio bat sinatu dugu Laguardiarekin ardoan eta harresietan oinarritutako turismoa sustatzeko; hori bai, pertsona ezagunak argazkia eta guzti. Hirigintzan eta ingurumenean, jasotako herentziaren gatibu jarraitzen dugu. Zuen herentziaren gatibu. Burbuilaren itzaletan egindako arau subsidiario batzuk, orain nahiko genukeen bezala garatzen uzten ez digutenak, adabakien bidez konpondu nahi dituzuenak. Nahikoa zela esan genizuen, gelditu eta etorkizunera begira zer Artziniega nahi dugun pentsatuko genukeela. Ez bederatziok, auzoko guztiekin baizik. Kulturen, antzeko egoera dago. Zuen proposamena: dena dagoen bezala uztea. Ez diru-laguntzei buruzko ordenantzarik, ez gazteen aldeko apustu argirik, ezer ere ez. Kuadrillatik zuzenean programatutakoa, eta ez gauza berririk. Euskarari dagokionez, antzekoa. Eta horrela, gai guztietan, gaur eta beste osoko bilkura batzuetan ikusi dugunez. Eta azkenik, baina ez garrantzirik gabea, urtebete izan duzue barkamena eskatzeko, zuen alderdiko udal-batzarrak Udalbatza berria eratu aurretik izandako elkarrizketa batzuen ildoan egindako salaketa larri batzuegatik. Aipatutakoek zurekin, Iñigo, eta alkatea ohiarekin egindako bilera batean, gertatutakoa argituko zenutela esan zenuten, eta beharrezkoa izanez gero, barkamenak eskatuko zenituztela. Ba, ez publikoki ez pribatuki, ez duzue horri buruz beste ezer esan. Egia esan, gutxi axola zaigu zein diren zuen antolaketa-egiturak, batzarreko kideak zareten, independenteak zareten edo militanteak edo dena delakoa zareten. Baina hau badakigu: EAJren izenean, norbaitek bilera haietan EAJren ordezkariak hertsatzea leporatu zien EHBilduko pertsoneri, eta urtebete igaro ostean, ez duzue salaketa horien erantzukizunik hartu".



Alkatea: Eskerrik asko zuen hitzaldiagatik. Zuen estiloa hobea dela esan duzu, bueno, ulertzen dut. Jakina, hori esan behar duzue. Baina gu pozik gaude egiten ari garenekin. Partaidetzazko prozesuei egin dizkiozun kritikei dagokienez, egia da prozesu horiek irekitzen ari garela eta guk foroetan parte hartzen duen jendea barne hartzen duen politika inklusiboaren alde egiten dugula. Hala ere, foroetan parte hartzen ez duen jendea ere hartu behar dugu aintzat. Eta aldaketa handirik egon ez delako kontu hori, bueno, ba, lanean ari gara eta...

Alazne Lafragua Ureta: Baten bat egon dela onartu dugu, e?

Alkatea: Bai, bai, eta apurka-apurka ari gara. Gauza batzuk errazago irtetzen dira, eta beste gauza batzuk gehiago kostatzen dira, e? Baina pausoak ematen ari gara. Eta azkenik, aipatu duzun azken puntua ez da osoko bilkuraren kontua.

Alazne Lafragua Ureta: Bueno, ez da osoko bilkurarako kontu bat, baina egia da EHBilduko pertsona batzuei...

Alkatea: Kontu politikoa da, ez osoko bilkurarako.

Alazne Lafragua Ureta: Ez da osoko bilkurarako kontua. Ados, nahi duzuna, baina, hemen, gertatu ez ziren zenbait gauza leporatu zitzaizkion EHBilduko jendeari, eta barkamenaren zain gaude oraindik. Pena ematen dit Arkaitz hemen ez egoteak. Azken batean, besteak beste, berari leporatu zioten, eta bueno, baita Josebari ere, baina, tira... Behintzat, otsoa belarrietatik hartu beharko litzateke.

Alkatea: Berriri diot, osoko bilkurarako ez den kontu bat da hori, EAJren udal-batzarrak parte hartutako bilera baten kontu ba da.

Joseba Elejalde Ribacoba: Zehaztasun bat, besterik ez. PPren eta EAJren arteko akordio bat aipatu duzu. Bueno, osoko bilkura honetan argi utzi nahi dut ez dagoela inongo akordiorik. Egun hartan, laguntza espezifiko bat eman zitzaion EAJren zerrendari, baina ez dago ez akordiorik ez lankidetzarik; ez dago ezer. Ni independentea naiz. Alderdi Popularreko zinegotzi independente bat naiz, ez daukat gobernu-taldearekin zerikusirik. Eta akordioaren kontu hori, ba, kentzeko, aldatzeko, edo hurrengo egunean testua berreginda ekartzeko eskatuko nizuke.

Alazne Lafragua Ureta: Tira, hori bada arazoa, oraintxe bertan esango dut. Egun hartan akordio bat lortu zenuten eta alkatetza EAJri ematea adostu zenuten.

Alkatea: Puntu horri dagokionez, Alazne, ez dago inongo akordiorik. Eta horren froga dago: zuek ere Gobernu Batzarrean zaudete. Hortaz, ez esan ez dagoela hobekuntza-proposamenak jasotzeko borondaterik, Gobernu Batzarrean zaudete eta. Eta nik uste dut zuek egindako proposamen batzuk onartu direla. Ez dela nahikoa? Gehiago onar zitezkeela? Bueno, baina onartu egin dira. Denen borondatea hartzen da kontuan.

Alazne Lafragua Ureta: Ni ez nago horrekin hain ados, e? Baina tira.

Alkatea: Denena.

Joseba Vivanco Retes: Nik, amaitzearren, entzun nahiko nuke Josebak legealdi honen zer balantze egiten duen; gaur ez bada, beste egun batean. Gaurko osoko bilkura nolakoa izan den kontuan hartuta, eta agian, Joseba, horretan nirekin ados egongo zarela uste dut, zuk eta guk hainbat gai proposatu ditugu, eta oso erantzun txikia egon da Udal Gobernuaren aldetik. Ados egongo zara nirekin oso erantzun txikia egon dela. Urtebete igaro ondoren, sentitzen dut esatea, baina iruditzen zait gaurko osoko bilkura Udal Gobernuaren osoko bilkurarik txarretako bat izan dela. Izan ere, gai asko proposatu ditugu, eta ez da ia erantzun zehatzik egon. Ez da zalantzak argitu dizkigun erantzunik egon. Eta horrela esatea sentitzen dut, eta ziur nago Joseba ere ados egongo dela, berak ere galderak egin dituelako, kritikak egin dituelako eta erantzun berberak jaso dituelako. Orduan, bueno, hor uzten dut.

Alkatea: Bueno, galdera asko egin dituzue. Halaber, gai askori buruz ez duzue galderarik egin. Beraz, gai horiek argi dituzuela pentsatu behar dut. Eta aurreko osoko bilkuran egindako galderei ere erantzun diet. Jakina, ez gara gauza guztietara iristen, eta hurrengo osoko bilkuran, gaur erantzun ez ditudan galderei erantzungo diet. Etsigarria? Bueno, ba, zure ustez, egiten dugun guztia etsigarria izango da beti.

Joseba Vivanco: Bai, bai.

Alkatea: ...argi dago. Beti? Beno, besterik?

*Ayuntamiento de Artziniega*  
*(Álava)*



*Artziniegako Udala*  
*(Araba)*

Eta jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko hamarrek eta hamar minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.